

GASTEIZKO OSASUN AZTERKETAK: MUFACE, IIP, AZP

Arabako Campusean, hitzordua erreserbatzeko aukera dago.

Helbidea: **IMQ (Prebentzio Zerbitzua)**, Avda. de los Olmos 1, Bulegoak 03-04, Vitoria-Gasteiz.

Hitzordua eskatu behar da helbide honetan:

<http://www.ehu.eus/citas-medicas>

Honakoak hautatuta

Campus: Araba-Vitoria-Gasteiz

Kontsulta mota: Osasun azterketak - Analitikak

Osasun azterketa egin diezazuten nahi duzun eguna eta ordua

Gogoan izan honakoak:

Osasun azterketak EZ DIRA Campuseko Errektoreordetzaren betiko tokian EGINGO, goian adierazitako helbidean baizik.

Erreserbatutako hitzordua odola ateratzeko eta osasun-azterketa egiteko da.

Nola joan:

- Baraurik joan beharko duzu (diabetikoek izan ezik, normalean gosaldutik behar baitute eta beren tratamendua ohiko moduan jarraitu behar baitute), eta beti zure egoeraren berri eman beharko diezu artatzen zaituzten osasun langileei.
- Goizeko lehen txizaren eta ontzi egoki batean jasotako gerneru lagina eraman beharko duzu. Ez badaukazu, gure instalazioetan emango dizugu.
- Ura edan eta botikak har ditzakezu. Ez edan edari alkoholik.
- Betaurreko zuzentzaileak edo lentillak behar badituzu, joan haiekin osasun azterketara, ikusmen kontrola behar bezala egiteko.